

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko apirilaren 19a

✱



Isturitzeko museo etnografikoa

■ Duela sei urte barnealdeko herri txiki bat hautatu zuen Mixel Amadek bizitzeko. Baionan sortua, Amade Isturitzen bizi da urtean zehar. Isturitz zeharkatuz, XIV. mendeko etxe zahar bat biziki gustatu zitzaion, Xanxutea izenekoa, eta erosi egin zuen. Bertan, bi milatik gora

antzinako tresna eta lanabes biltzen dituen museoa jarri du. Euskal Herriko bazter guztietatik bildu ditu lanabesak, azken hamabost urteetan. Museoaren helburua, Amadek dioenez, ez da gauzak erakustea, «funtsezko galderak egitea baino. Dudak nahi ditugu sortu». ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Zinpeko guardiaren puskaz aparte Dodosak Koltxoien barruko tripak Botila arbuioak Kanpinak Euri azidoaren az-tarnak Indar elektrikoko zutoin sareak Harri xume eta harri koxkorrez egindako pistak Peta muturrak Kristal zatiak Autoetarako olio lohidurak Coca-Cola latak Xiringak Amalurraren pareta erraldoi hormigoizkoak Orein erraiak Sardina lata herdoilduak Basomutilek botatako gasolina latak Emaztekiek Evaxak Aspaldiko gurdi geldiak Manolo Escobarrena barne Kondoi kutsuak Zabortege kontrolatu ez kontrolatuak Gora tarra-tarren tarratadak Mugarri geodesikoak Betizuak jan ezindako behi ero errabiatuak ETBko antena he-

Alabaina

rrikoak Turismo Antolamendurako eta Azpiegiturako Bulegoak Lerro telefonikoak Obusak Harrizko neuronez eraikitako bunkerrak Hor dago gakoa-ren kable puskaezinak Gas bonbonak Yoghourt potoak Mister Properrenak eta besterenak Goardia Zibilaren Patrolak eta Beraien Potroak Baselizak Ehiztarien uralitazko txabolak eta haiek tiro egindako kartutxo gorpuak Hauteskunde afitzak Pintada ekologistak Haizeak harat-honat eraman-dako plastikozko poltsak Gehienak EROSKIrenak Menturazaleen 4x4 furgoneta kilikagarriak Garrafoiak Nafarka(e)riaren deserakuntzarako motozerra erradialak Mendiko txirrin-

dula ez kutsatzaileak Trialeko moto kutsatzaileak Domingeroak Belarra biltzeko plastikotzar hondar txikituak Seinale naturalistak Roca komunak eta euren edukin gogortua Habi prefabrikatuak Langile soil putos obreros eskirolen porlana-bokatak Borda adosatua Lastairak Garbiketa eta Mantenimendurako Zerbitzuguneak Anaren grabagailu boligrafo eta txostenak Hondakin-industrialak Kaletarren txaletak Militarrek abandonatutako materialen narrioak Piszinak Izandako eta ez izandako guru orrendako guru-tzeak Otanoren hitz puzkartiak Eta besterik ere badira franko basoilarrarekin batera Iratiko Basoan. X

* **GURE AUKERAK****KONTZERTUAK**

Barañain: S.A., La Polla, Tapia eta Leturia Band eta Kashbad taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, gaueko 9.00etan, frontoian.

Iruñea: Gaiarre antzokian Pablo Sarasate orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko 8.00etan. Shubert, Mozart eta Schoenberg-en obren musika joko du orkestrak.

Gares: Fundamental aretoan Napalm Death, At The Gates eta Face Down taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, gaueko 23.00etan. Sarrera 2.200 pezeta kostako da takilan, eta aurretiaz erosiz gero, 2.000 pezeta.

Aitzain: Artsaia aretoan Ñu eta Malkaviam taldeek joko dute bihar, gaueko 23.30etan. Sarrera 1.200 pezetakoa da, eta aurretiaz hartzen bada 1.000 pezetakoa.

ZINEMA

Iruñea: Olite zinemaren *La jungla de asfalto* pelikula eskainiko da arratsaldeko 8.00etan.

ANTZERKIA

Tafalla: Gus Marionetas taldeak bihar, arratsaldeko 6.00etan, ariko da Kultur Aretoan.

Zugarramurdi: Goloka eta Korroska taldeek txotxongilo emanaldia eskainiko dute bihar, arratsaldeko 6.00etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxako Carlos III aretoan Juan Carlos Roman-en obra ikus daiteke apirilaren 28ra bitarte.

Corella: Kultur Etxean Beatriz Chivite 'Arbeiz'-en lanak ikusteko aukera dago datorren astelehenera arte. Erakusketa lanegunetan eta larunbatean izango da zabalik 17.00etatik 21.00etara.

Zangoza: Udal Kultur Aretoan Itziar Alforjaren lan grafikoak daude ikusgai apirilaren 28a bitartean. Lanegunetan 19.00etatik 21.00era dago zabalik, eta jailegunetan 12.00etatik 14.00etara.

Iruñea: Ortziari jatetxean P. Matud-en lanak daude ikusgai maiatzaren 16ra arte.

IBILALDIAK

Iruñea: Nafarroako Mendi Eskolak Etxalar herritik Ibandelli menditik pasatuta Beraraino ibilaldia antolatu du iganderako. Izena eman nahi duenak elkarrekin Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzatik igaro behar du edo 22 43 24 telefonora deitu.

Iruñea: Nafarroako Goi Mendi Eskolak Malloetatik Balerdi mendira bitarteko ibilaldia antolatu du datorren iganderako. Izena eman nahi duenak 10 78 48 telefonora dei egin behar du.

nafar kronika

Fermin Erbiti

Aukera ona

OHoko seigarren kurtsoa egiten ari nintzela Lasalletarrek Iruñeko Donibane, auzoan zuten ikastetxea ixtea erabaki zuten. Praileek maiatz aldean eman ziguten horren berri ekaineko azterketetan eskuazabal jokatu zutela iragarri. Albistearen egutia eta berehala, gurasoendako kalbarioa hasi zen, garai hartan ikastetxeetan plaza bat lortzea oso zaila zelako.

Hogeitaz pasata, egoera zeharo ezberdina da bi arrazoiengatik: eskola publikoa sendotu eta hobetu delako eta jaiotze tasaren jaitzierak 50 lagunekoa gela haiek desagertarazi dituelako.

Haur guti eta eskola aunitz. Horixe da gaurko egoera, hori da aurrematrikulazio garai honetan eskola eta ikastola guztiek gogoa duten kezka. Horrek, jakina, adituen aburuz hain ona den kompetentzia ekarri digu ikastetxeetara. Komunikabideetan irakurtzen edo entzuten ari garen iragarkiak dira aldaketa horren lekuko, orain dela hogeitaz urte inork ez baitzuen publizitatean deus gastatu behar gelak gainezka ikusteko.

Kontua da euskara lehian dagoela. Azken egunetan irakurritako datuen arabera, nafar neska-mutikoen ehunekoa hogeitaz gora euskaraz edo euskara ari da ikasten. Hizkuntza Politikarako arduradunek euskara aukera ona dela diote baina, tamalez, ez dut uste hori

Hezkuntzako eta, oro har, Diputazioko arduradunen iritzia denik.

Euskara aukera ona dela pentsatuko balute, gutxienez, frantsesa edo ingelesaren maila berean jarriko lukete ikastetxe publiko eta pribatu guztietan. Aukera hori oztopatzen segitu nahi dutenez gero, atzerriko hizkuntzak derrigorrezkoak diren bitartean, hemengoak debekaturik dago hainbat herritako eskola publikoetan.

Jesus Atxa idazten ari den ikastolen historia argitaratzen bada, hauek baino garai askoz zailagoetan lege eta inspektore gogorrenei ere (horietako bat ondoren hezkuntza kontseilaria izan zen) aurre egin zitzailela gogoratuko dugu. Gaur egun neska-mutikoen bostetik bat euskaraz ari baldin bada, guraso eta irakasle haiek eginiko lan txukunari esker dela ezin da ahaztu. Hemendik goiti ere, portzentaia igo nahi bada, lan txukuna lege eta politikoen zikoizkeria baino askoz erabakiorrago izanen delakoan nago.

Diputazioko agintari gehienek kontrako pentsatu arren, egia da Hizkuntza Politikako diotena. Euskara aukera ona da. Hoberena. Ez lanean hastea erraztuko digulako, baizik eta gurea delako. Eta gizarteak, hezkuntza arloan zein bertzetan, aitzina pausuak ematera behartuko ditu hizkuntza baztertzeko segitu nahi duten agintariak.

*asteko pertsonaiak*

Jose Antonio Ardanza
EAEko lehendakaria

■ Jose Antonio Ardanza Euskal Autonomi Elkarte lehendakaria asteazkenean etorri zen Iruñera EITB Nafarroan hartzeko hitzarmena sinatzera. Ardanzak Javier Otano Nafarroako presidentearekin batera sinatu zuen hitzarmena Nafarroako Jauregian. Lehendakariak hitzarmena izenpetzea bere aspaldiko «ametsa betetzea» zela azpimarratu zuen. Bere ustez, hitzarmena Nafarroan aspaldidanik zegoen eskaera bati erantzuten dio, EITB ikusi eta entzun egiten bazen ere, ez baitzen garatia tekniko eta juridiko guztiekin egiten. Aurrerantzean, traba horiek gaindituta geldituko dira akordioari esker.



Javier Zubillaga
Osasunako zuzendari tekniko

■ Osasunako zuzendaritzak taldearen historiako lehenbiziko zuzendari tekniko aurkeztu zuen joan den asteazkenean Taxoaren: Javier Zubillaga. Besteren artean Realeko jokalaria izan zen, eta azken denboraldietan Alaveseko zuzendari tekniko. Orain, hiru urterako fitxatu du Osasunarekin. Paquito entrenatzaileak ez duela jarraituko gero eta argiago dago, eta igotzeko aukera guztiak galduta, zuzendaritza berriak hainbestetan aipatu duen berregituraketa ez du gehiago atzeratu nahi izan. Osasunako entrenatzaile berriaren profila zehaztea eta Taxoaren berregituraketa izanen du Javier Zubillagaren lehendabiziko zeregina.

ahaztu gabe!**LEHIAKETA**

Zizur Nagusia: Udaleko Kultur Patronatuak literatur sormena bultzatu nahi du herrian, eta horretarako Zizur Nagusiko Haur eta Gazteentzako II. Ipuin Lehiaketa antolatu du, euskaraz eta erdaraz. Zizur Nagusiko eta Zizur zendeako haur eta gazte guztiek parte hartu ahal izanen dute, zenbait mailatan banatuta. Lehen hezkuntzako lehen eta bigarren mailako haurrek folio erdia idatzi beharko dute gehienez, hirugarren eta laugarren mailakoek folio bat eta bosgarren eta seigarren mailakoek bi folio. Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoek hiru folio idatzi beharko dituzte gehienez. Haur bakoitzak nahi duen gaiari buruz idatzi ahal izanen du eta lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Partaide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake Kultur Etxean, maiatzaren 17a baino lehen. Lanarekin batera kartazal itxi batean izen-deiturak, helbidea, telefonoa, ikastetxea, maila eta adina idatzi beharko ditu partehartzaile bakoitzak. Saritutako lanekin argitalpen bat kaleratuko du Udalak eta partaideen artean banatuko du.

*adi!***Euskalerria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetaillu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gainera, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Baztan

Doike euskara talde sortu berriak aurkezpena egingen du bihar

Baztango Dantzari Taldeak antolatutako '12 ordu euskaraz' jaialdiaren barruan

Doike-k, Baztanen sortu berri den euskara taldeak, bihar egingen du jendaurrean aurkezpena. Eguerdian, hamabi eta erdietan izanen da, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Baztango Dantzari Taldeak antolatu duen 12 ordu euskaraz jaialdiarekin bat egingen du Doikek, eta aurkezpena ezezik, hainbat ekitaldi ere izanen dira.

Erredakzioa / Iruñea

BAZTANGO BAILARAKO herri gehienetan ditu Doike taldeak bazkideak. Mota guztietakoak gainera, hainbat lanbidetakoak, irakasleak, osasun arlokoak, langileak, dendariak, administrazio publikoko langileak eta abar eta abar. Baztanen euskararen egoera hobetzeko elkartu dira. Larunbatean jendaurrean egingen duten aurkezpena izanen da Doikek antolatzen duen lehen ekitaldia, lehen urratsa, baina inolaz ere azkena. Euskara talde berriak, gainera, bere ateak zababazalik utzi ditu elkartean parte hartu nahi duen edonorentzat. «Bakitzak jakinen du zer eskaini ahal duen euskararen presentzia gure inguruan egiazkoa izan dadin», diote taldekideek.

Doike, orain arte gauzak batzuk lortu badira ere, hutsune bat betetzeko jaio da. Badira, euren ustez, beharrezkoak diren bertzelako gauzak. Hasteko, euskararen ezagupenetik erabilera-



Doike taldeko kideak, egindako azken bileraren ostean.

DOIKE

ra jauzia eman behar da Doike taldeko kideen ustez.

Aipatu zeregin hauek guztiak bere egin ditu Doike elkartek, eta asteburu honetan bertan hasiko da lanean. Larunbatean, hain zuzen, arratsaldeko zazpiak aldera eta Baztango Dantzari Taldeak antolatutako 12 ordu euskaraz jaialdiaren barruan, mahaingurua egingen dute Doike taldeko kideak beste talde batzuetako hainbat kideekin batera. Bertan izanen dira, besteak beste, Baztango Dantzari Taldeko kideak, Baztandarren Biltzarreko kideak, AEK-ko kideak eta irakaskuntzatik etorritako beste hainbat, Baztanen euskarak

duen egoera aztertzeko.

Aipatu 12 ordu euskaraz jaialdian, halaber, hainbat ekitaldi egingen dituzte igande osoan. Guztiak antolatzeko bailarako zenbait taldek hartu dute parte. Beraz, dantza ikuskizunak, mendi ibilaldiak, futbol eta pilota partiduak, mus txapelketa, kantaldiak eta beste hainbat izanen dira. Meza ere egingen dute goizeko hamaika eta erdietan Elizondon. Bertan herriko abesbatza ariko da. Ondoren, eguerdiko hamabi eta erdietan, mutil dantza eta soka dantza izanen dira ikusgai. Ordu biak eta erdietan, berriz, zikiro jatea egingen dute, eta bazkaldu ondoren mus

txapelketa, Doikek antolatuta. Bost eta erdiak aldera Baztango dantzariak ikuskizuna aurkeztuko dute.

Musikak ere izanen du txokorik. Baztango Musika Eskolako akordeoi orkestrako kideak, hain zuzen, kontzertua eskainiko dute. Halaber, Rigor Mortis eta Potoka taldeek ere kontzertua emango dute arratsaldeko zortzietan.

Azkenik, egunari amaiera emateko, dantzaldia izanen da Foru enparantzan gaueko bederatzietan. Aipatzekoa da Xorroxin iratiak goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara emitituko duela igandean. X

Izaba

Turismo Bulegoa ekainean zabaldu nahi du Udalak

■ Bulegorik gabe egon da orain artean Izaba

Fernando Hualde / Izaba

AURREIKUSITAKOAK betetzen bada, datorren ekainean, Udalen ekimenez, Izabako Turismo Bulegoa izanen du. Bertan urtero Erronkariko herri hau bisitatzen duten milaka eta milaka lagunei behar duten informazio guztia emango diete.

Hainbat arazo eta Administrazioaren trabak zirela eta, Turismo Bulegorik gabe egon da orain arte Izaba, nahiz eta Erronkarin bisitari gehien jasotzen duen herria izan.

Turismo Bulego berria errepide ondoan eraikiko dute, Izabako hiltegi zaharra osatzen zuten eraikimetako batean. Aipatu hil-

tegia Angel Galek eraikiarazi zuen mende honetako lehen urteetan. Gale izan zen, hain zuzen, Izabako ongile eta herriko turismoa bultzatu zuen lehenengoetakoa.

Egun, hiltegi zaharreko eraikina berritzen duten bitartean, Udaleko Turismo Batzordea lanean ari da produktu turistiko diseinatzeko, pilotutako esperimentazioa eta inguruak dituen ahalmenak oinarritzat hartuz. Halaber, Turismo Batzordeak berak Izabako harrera turistiko zentroetan inkesta bat banatu du, turismoaren eskaerari buruzko informazioa bildu eta honi buruz zerbitzuen sektoreak egiten duen azterketa jakiteko. X

Iruñea

Sortzen taldeak jaialdia antolatu du Taconeran

■ Goizeko hamaiketan hasiko dira ekitaldiak

Erredakzioa / Iruñea

SORTZEN taldeak euskal eskola publiko berriaren aldeko jaia antolatu du. Bihar izanen da, Iruñeko Taconera parkean. Jaialdiari hasiera emateko, goizeko hamaiketan haurrentzako jolasak izanen dira: zaku lasterketak, margo tailerra, ginkana, plastikako tailerra eta hankapaluak, besteak beste. Axular eta Amairu ikastolako dantza taldeek, gainera, euren ikuskizuna aurkeztuko dute Taconeran bildutakoan aurrean. Ondoren, hamabiak eta ordu batak eta erdiak bitartean, P. Aparicio I. Krosa egingen dute.

Ordu biak eta erdietan herri

bazkaria izanen da. Eguraldiak laguntzen badu Taconeran bertan egingen dute. Bazkaldu ondotik, arratsaldeko laurak aldera, Nafarroako Bertsolari Eskolako kideak ariko dira kantuan. Hauen ondotik, berriz, Orbelak musika taldeak eta Ortazar fanfarreak hartuko dute euren gain giroa alaitzeko ardura. Seietan rock musikak hartuko du jaiaren lekukoa Eztanda eta Lehiotikan taldeen eskutik. Egun osoan zehar, gainera, haurrentzat hainbat ikuskizun izanen dira, gaztelu puzgarriak, trenak eta abar. Amairu trikitixa taldea ere egun osoan zehar ariko da Taconera parkeko bazterrak alaitzen. X

Erriberri

Ondarearen Interpretazio Zentroa eraiki nahi du Udalak

■ Izaera honetako lehenengoa izanen litzateke Nafarroan

Erredakzioa / Iruñea

ERRIBERRIKO UDALAK Ondarearen Interpretazio Zentroa eraiki nahi du herrian. Horretarako, hainbat ideia jasotzeko asmoz, lehiaketa publikora deitza onartu zuen joan den ostiraleko batzarrean. Udalaren asmoa aipatu zentroa Erdi Aroko galerietan eraikitzea da, turistak hartu eta Erriberriko eta inguruko beste hainbat herritako arte eta kultura ezagutu dezaten.

Nafarroan badira natura interpretatzeko hainbat zentro, Otsagabia, Erronkari eta Bertizen kasu. Erriberrikoa, hala ere, kultura eta monumentuei buruzko informazioa eskainiko lukeen lehenengoa izanen litzateke, eginez gero. Kultura eta monumentuei dagokienez, hain zuzen, eskaintza zabala du Erriberriko: harresi erromatar eta Erdi Arokoak, Nafarroako erregeen Erret jauregia, San Pedro eta Santa Maria elizak, San Francisco eta Santa Engracia monasterioak eta lur azpiko galeriak, hain zuzen ere.

Proiektuari dagokionez, gutxi gora-behera bederatzimilioi pezetara eta erdiko aurrekontua beharko luke Erriberriko Ondarearen Interpretazio Zentroak hasteko. X

Basaburua

Kultur Hilabetea abian da bailarako herrietan

■ Irkaintz gazte taldeak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

BASABURUA BAILARAKO Kultur Hilabetea abian da. Bertako Irkaintz gazte taldeak antolatu du, aurreko lau urteetan bezala. Kultur Hilabetearen bidez herritarrek elkartu eta euskara eta euskal kultura bultzatu nahi ditu Irkaintz taldeak. Bosgarren ekitaldi honen barruan, gaurpasa izanen da bihar Gartzaronen Elurte taldearen eskutik. Biharamunekoa haurren eguna izanen da. Azkona taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du egun honetan.

Datorren igandean, hilaren 28an, ibilaldia antolatu dute Basaburua bailarako hainbat menditan barrena. Ekitaldiek maiatzaren jarraituko dute. Hilaren 4an, hain zuzen ere, bertso afaria izanen da Erbitiko elkartean. Eta 5ean, azkenik, adinduen eguna ospatuko dute Berueten. X

Mixel Amaderen
museoa Isturitzen

Xanxuteko Museoa

Mixel Amade baionatarrak urteetan bildutako bi milatik gora aintzinako pieza ikusgai dira Isturitzen

Harpe zoragarriengatik da ezaguna Isturitze, baina ez luke horrengatik bakarrik izan behar. Herrian bertan, bi milatik gora aintzinako tresna eta lanabes biltzen dituen museoa baita, Mixel Amaderen museoa. Euskal Herriko bazter guztietan bildutako lanabes hauekin osatu du behialako gizarteak erabiltzen zituenaren parte handi bat.

Audrey Hoc / Baiona

DUELA sei urte, barnealdeko herri tiki bat hautatu zuen Mixel Amadek bizitzeko. Baionan sortua, Amade Ustaritzen bizi da urtean zehar, haurra bertako ikastolan baitu. Egun batez, Isturitze zeharkatu, XIV. mendeko etxe zahar bat biziki gustatu zitzaion, Xanxutea izenekoa, eta erosi egin zuen. Pilota plaza eta ostatuaren erdian kokaturik, lehengo garaien lekukoak ditu inguruko gune famatuak: Isturitze eta Otsozelaiko harpea, Elzarruzeko hiru ttonttorrak, Abarratiako historiaurrearen aztarnak, Rocafort jauregiko dorre beltz-beltza, «Nafarroako erreginaren benetako egoitza» Amadek zioen.

Horrelako leku xoragarria eta sinboloz betea aspalditik bilatzen zuen haurtzaroko ametsa gauzatzeko: museo etnografikoa ireki 15 urtez bildu zituen euskaldunen lehengo tresnekin. Galdeginen didazue zer den museo mota hori: museo horretan Euskal Herriko tresneria nahiz edozein gauza aurkezten dizkigu, eskuin eta ezker aurkitu duena. Laborantxako tresneriak toki zabala hartzen du, noski, eta interesgarria da ikertzea nola teknika aldatu diren mendez mende. Lurra lantzeko edozein motatako tresnak ikus daitezke, burdinazkoak gehienak. Gizonak bakarrik edo abereekin erabiltzen zituen aitzur, sega, mailu, golde eta beste tresnak metatzen dira lehen solairuan. Ondoa, sukalde batean barneko puskak bildu ditu: kutxa, armairu, ontzi, su-pazterreko tresna... Lehen solairuan, aldiz, bildutako gauzak ofizioka sailkatu ditu, eta zurgin, arrantzale, artzain, dendari eta laborarien tresna ugari bildu du. Lehengo laneko moldeak berriro asmatuz, duela zenbait mendeko bizi baldintzak asma daitezke.

Erromatarren garaiko

lekukoak • Aro guztiak ere errepresentatuak dira eta erromatarren garaiko lekukoak ere bildu ditu, hala nola lurren arteko muga egiteko erabiltzen zuten harri bat. Aspaldiko dirua ere bildu du; bere pieza zaharrenak erabiltzen ziren Iberoek Europa izitzen zu-



Artzainen eta laborarien tresnak, etxeokak, denetatik dago bi solairutan banatuta.

JAGOBA MANTEROLA

Aspaldiko dirua ere bilduta dago; bere pieza zaharrenak erabiltzen ziren Iberoek Europa izitzen zutenean

tenean.

Alabaina XV. eta XVI. mendeetako dirua errazago bildu du. Xanxutea etxean sartzean aurkitu zuen lehenengo moneta kasualitatez. Geroztik sukaldeko ontzi zahar batean atxikitzen du, eguzki-lore baten babespean.

Museoan erakutsi diren pieza



15 urte zituelarik biltzen hasi zen piezak ikus daitezke museoan.

JAGOBA MANTEROLA

Atxiki baino gehiago, Euskal Herriko kulturak daukan gauzak zaindu eta babestu nahi ditu Mixelek.

guztiak leku desberdinetatik heldu dira. «Lehen denbora asko nuen ibiltzeko, eta Pirinioetako kateak zeharkatu ditut ezohiko gauzen atzemateko», adierazi du, nahiz eta ohiz kanpoko gauza

zuzen aurkitzen zituen bere piezak, eta toki egokienak zikintegi antzeko lekuak edo brokantak zirela erantzun digu, «baina non-nahi aurki daitezke gauza interesgarri bat». Gehienetan, Mixelek eskuratutako gauzak pagatu egiten ditu, baina hala ere zenbait tresna zahar eta balio gabekoak (jabeentzat!) urririk ematen dizkiote. «Ez da deus baliok ez duenik, eta dena atxiki behar da gaurko gazteriari nahiz jende guztiari Euskal Herriak daukan altxor guztiak erakusteko gisan».

Atxikitzeko gustu hori titikitan jadanik bere baitan ernea zeukan Mixelek. Bere aitatzik eta amatxik zein-nahi gauza bazterten zutelarik, «ez, ez, hau atxiki behar da, ez bota», oihukatzen zien. Atxiki baino gehiago, Euskal Herriaren kulturak daukan gauzak zaindu eta babestu nahi ditu, munduak ez dezan ahantz Euskal Herriak duen garrantzia historian eta kulturean.

Kultur erakundeetatik

laguntzarik ez • Bere erakusketaren muntatzeko, Mixelek ez du laguntzarik ukan kultur erakundeetatik, museoak ez baitute begi onez ikusten. Orduan lagun eta senideen laguntza bakana-ekin Xanxutea baserria erosi zuen eta barneko espazio osoa antolatu zuen. Noiznahi, su eta ke lanean diraute piezak bilatzeko, biltzeko, konpontzeko, moldatzeko... Ondotik, sailkatzen dituzte familia bereko piezekin jartzeko. Ahal denean, zeren eta maite baitu pieza batzuen helburua ez aurkitzea ere. Hain zuzen ere artzainen xokoan jarri du zurezko pieza bat, marrak dituen, zeinen erabilpena ez duen oraindik ezagutzen. «Benetako ikerketa sakonak bultzatu behar genituzke, egunez landuz etabar, bainan ez dugu dirurik horrelako lan baten egiteko», azaldu du. Ondoren, pasatzen diren bisitariak erakusten die pieza delakoa, umiltasun handienekin galdeginez ea ezagutzen dutenez.

horiek duela mende batzuk eguneroko tresneria ziren. Nafarroako lurraldeetan ere ibili da, batez ere Baztan aldean, baina bere urratsek eraman dute Biarritz aldera, ahantzi gabe gauza anitz Ipar Euskal Herrian bertan bildu dituela.

Galdegin diogu ere zein lekutan

Mixel Amaderen
museoa Isturitzen

◆ Mixel Amade ◆ Xanxuteko museoaren sortzailea

«Nahi ditugu dudak sortu»

Duela hamabost urte hasi zen Mixel Amade tresna zaharrak bilatzen eta guztiak Isturitzeko Xanxutean bildu ditu. Txikia zelarik oso maite zituen aita txik zituen gauzak eta horiek bildu zituen lehenik hura zendu zenean. Toki anitzetan egiten du bilketa orain.

Lutxi Fourcade / Isturitze

■ Nola hasi zinen duela 15 urte tresna zaharrak biltzen?

Betidanik maite izan ditut tresna zaharrak. Txikia nintzelarik

nean etxalde bat sortu nahi nuen, laborantzan plantatu abereekin. Gero asmoa izan neun sagardoa egiteko Sugartzea elkartearekin, baina egun batez, ikusiz izigarriko tresneria bildu nuela, erabaki nuen museo etnografikoa irekitzea.

■ Zer helburuekin?

Hastapeneko helburua zen ezagutaraztea Nafarroako historia, baita ere Euskal Herrikoa edo Pirinioa bizia, zeren dena lotua baita. Pirinio osoa herri bat baizik ez zen garai batean eta batasuna, osotasun honen lekukotasunak erakutsi nahi genituen. Historia hobeki ezagutua da Hegoaldean hemen baino, eta funtsezkoa iruditzi zitzaigun zerbait sortzea hemen. Gero, errazagotzat jo ge-

anitz baitira eskualde guztietan. Gauza franko ekarri ditut Nafarroatik eta garrantzitsuenak edo zaharrenak ere bai.

■ Zer erraiten du jendeak tresneria zaharra biltzeko nahikaria erakutsiz?

Batzuk ezagutzen ditut eta ezagutzen naute, baina kasu gehienetan ez dira ohartzen ere bota dituzten puskak bildu ditudala. Nik edozein gauza biltzen dut, kriterio bakarra zaharra izatea! Biltzen ditudan gauza batzuk ez ditut batere ezagutzen, hala nola oihalak eta. Burdina edo zura denean, hasiak gara espezializazio zerbait izaten eta gaia hobeki menperatzen. Baina denetarik biltzen dugu. Gauza batzuk aurkitzea gero eta zailago bilaka-

gauzak erakusteko. Hori nahitara egin dugu, gure berezitasuna da.

■ Nolako harremanak dituzu kultur saileko erakundeekin?

Egoera desberdina da mugaz bi aldeetako taldeekin. Ipar Euskal Herrian, harreman nahiko kaskarrak ditut beste taldeekin, ez baitute onartzen ene lana. Hegoaldetik, aldiz, onarpen ofiziala jaso dut nahiz eta diru laguntzarik ez! Ene biketa lanaren balioa ezagutu dute eta besteak beste harremanak ditut Donostiako San Telmo erakustokiarekin. ICOM Euskal Herri taldeko kidea naiz, beste museo guztiekin batera. Ene ustez, Ipar Euskal Herriko egiturek lan akademikoagoa ikusi nahi lukete, ohiko normak hurbiletik segituz. Zailtasunak ditut joko honen araudiak onartzeko, dudu edo galderek ez baitute inolako tokirik mundu horretan. Gogoia dut galderak egiteko, ateak ireki ziurtasunak adierazi baino gehiago, jakinez zientziak xehetasun berriak ekarriko dituela datozen urte edo mendeetan. Zernahi gisaz funtsezko problema ez da argibideak jartzea museo batean: behar dugu konbentzitu jendeak lehengo puskak etxean zaindu behar dituztela, ez daitezela herriitik kanpo joan.

■ Urtero milaka turista etortzen dira Isturitzeko harpe famatuak bisitatzen. Pentsatu duzue zerbait elkarrekin sortzea, bisitak elkarrekin antolatzea?

Harremanak ditugu harpeko arduradunekin baina oso zaila da proiektu komuna sortzea, logika desberdinean baidira. Ez dugu asmorik museo bilaka dadin gune turistiko arrunta, nahiz eta turismoaren alde izan ohorez betetzen bainau hainbeste jende ikusteak ene herriaz maiteminduta. Hala ere ez dut inolako asmorik ikusteko autobusak iristen Isturitzeko plazan eta nahi dudana ulertu gabe etxera joaten. Multzo handien turismoa bultzatzen dute, eta guk sortzen duguna intimistagoa da. Nahaiago dut jende gutxiago ikusi baina denbora hartuz, ordu bat edo bi ordu eleketan egoten lasaiki. Museoaren helburua ez da baitzupada gauzak erakustea, funtsezko galderak pausatzea baino. Nahi ditugu dudak sortu, erakutsiz ikasi dituzten gauza batzuk alegiazko zirela, errealtatea edertzeko asmatuak dudarik gabe. Lan bereziak bultzatzen ditugu eskola batzuekin eta interesgarria da irakasleekin eztabaidak sortzea.

■ Harreman bereziak dituzu Euskaltzaindiarekin gauzen izen egokia aurkitzeko?

Ez, ez dut harremanik eta liburuekin lanean ari naiz. Horrela ohartu nintzen Lhanderen hiztegi hutsune ugari bazirela, nahiz eta euskaldun berria izan. Alabaina laguntza handiena jasotzen dut Jose Ulibarrenaren eskutik.



Izatez baionarra, barnealdeko lasaitasunaren bila iritsi zen Isturitzera Amade.

JAGOBA MANTEROLA

oso maite nituen aita txik zituen gauza zaharrak eta ene jostagailu bilakatu ziren. Aitaxi zendu zelarik amak eta izebak dena bota nahi zuten, eta horrela hasi nintzen gauzak gordetzen. Handitu ahala, gustu hori erabat galdut nuen. Egun batez, tresna batzuk erosi behar nituen zelaia lantzeko eta azoka batera joan nintzen. Talo-burdinak eta beste tresna batzuk erosi nituen eta horrela hasi zen ene bilketa handia.

■ Nola antolatzen duzu zure bilketa, gauza bereziak bilatzen dituzu?

Aste batez 100 gauza biltzen ahal ditut eta ondokoan futsik ez. Ez dut deus berezirik bilatzen, den-dena biltzen baitugu. Hastapenean bost gai hartu genituen: lurra, burdina, harria, zura eta sukaldea. Baina laster ohartu gara dena hunkitzen genuela: zura aipatuz hunkitzen ditugu dutelagile, oihaneko lanak, baita kaikuak egitekoak.

■ Baina hastapenean bazenekien egun batez aski gauza izanenuela museo bat sortzeko?

Apariantziarik ere! Hastape-

nuen tresnak ibiltzea oinarri gisa, paperak bakarrik erabiliz ez baita hain argia. Lotura egin nahi dugu lehengo denbora eta gaurko garaiarekin.

■ Nafarroak garrantzi berezia dauka zuretzat?

Historiaren aldetik jakina, mila urte baino gehiago iragan baititugu Nafarroa eremua zelarik. Nafarroarik gabe ez da besterik. Erregea Nafarroakoa zen. Kanpoko jendeekin harremanetan sartzeko ere Nafarroa inportantea da. Euskal Herria aipatzen duzunean Biarno aldean ez dugu oihartzun handirik izan. Nafarroako sustraiak aipatuz, aldiz, sekulako oroitzapenak pizten dituzte.

■ Non biltzen dituzu zure tresna guztiak?

Xanxutean instalatu naiz duela sei urte eta geroztik ez dit sobera denbora librorik uzten. Lehen, etxea ez nuelarik, denbora osoz tresnak biltzen nituen, garbitzen eta Pirinio osoan barna ibiltzen nintzen. Zernahi gisaz, gaur ere toki anitzetan ene bilketa egiten dut, zaharkertak botatzeko toki

tu da, jendeek atxikitzen baitituzte etxea apaintzeko, argizaiolak adibidez. Alabaina azpimarratu nahi nuke ene problema ez dela gauzak aurkitzea, zeren bilketa emankorra da, jendeak gauza ainitz botatzen baitu. Nahaiago nuke ezer ez aurkitzea gauzak etxean zaintzen dituztelako.

■ Zure bilketa zabalean zer nahiago duzu?

Pieza guztiak maite ditut noski baina asko gustatzen zauzkit supazterreko tresnak eta etxe barnean ateak irekitzeko tresnak, morroilak, farailak. Baina gehienbat gustatzen zauzkit lehengo laratzak, bertzak, txilintxau-gia, suburdinak, hilargiak.

■ Duela sei urte hasitako ekimenak ohiko bidetik kanpo da nahitara?

Xanxuteak benetako museo bat aterbetzen du baina egia da ez duela usaiako apaindurik, ez dugu argibiderik eskaintzen edo adierazpen luzerik. Ahoko lekukotasunaren garrantzia aldarrikatu nahi dugu hemen. Beti behar da norbait harrera egiteko jendea eta denbora asko behar da

Orotara, orai 2.000 pieza baino gehiago erakutsiak dira, eta, arestian erran bezala, denetarik ikus daiteke. Zuen etxean aitatxi edo amatxi bat baldun baduzue, liluratuta egonen dira erakusketa honen aurrean. Liluratuago izanen dira oraindik seme-txoei erakutsiz haurtzaroko oroitzapenak, aspalditik ikusi ez dituztenak. Oroitzapenak pizteko molde ederra, lekukoa pasazaz ondoko belaunaldiari.

Gerorako, Michelen asmoa ez da bere erakusketaren handitzea, baizik eta herri bakoitzean honelako erakusketa batzuk antolatuak izatea. Eta ez pentsa Mixelen zaletasuna sakelak diruaz betetzeko aukera ederra denik. Gaur egun ez da museo horren bitartez bizi. «Ahal nuke», adierazi dugu, baina nahiago du museo hori denbora pasatzeko manera interesgarri bat izan dadin. Zernahi gisaz, Xanxuteko atea pasatu bezain fite ohar-tuko zara ezohiko museo bat bisitatuko duzula. Txakurra ate zain hor aurkituko duzu, pasaia lasaiki utziko dizuna jabea abisatu ondoren, eta ezkaratzean sartuz edozein baserritako giroan sartuko zira. Bazkaltzeko tenorean, eltzekariaren usain onak sudurra kilikatuko dizu eta, gustura, sukaldeko mahai

Mixel Amade:

«Benetako ikerketa sakonak bultzatu behar genituzke, egunez landuz eta abar, baina ez dugu dirurik horrelako lan baten egiteko»

luzean eleka hasiko zara Mixelekin.

Publizitaterik ez baitu egiten —edo arras gutti— eta gida ofizialetan ez baita agertzen, jende gutxi heldu da Mixelen erakusketa aberats eta nolazpait hunkigarriaren ikustera. Ez da dudarik zerbait huts egiten duela, itzuli baten egiteko arrazoi ona baita. Udan seihun bat pertsona edo gehiago etortzen dira, baina urtean zehar, Euskal Herriko biztanleak ez baitaki leku honetan honelako museo bat dagola, ez da jende handirik joaten Mixeli bisita baten egitera. Batzuentzat, behar bada, «zaharkertak» baizik ez baitira. Alta, erakusketa asteburuetan eta oporretan egunero irekia da eta gainera kittorik.

Orduan, arratsalde eder batez paseatzera joan nahi baduzue, autoa har dezakezue, Xanxuteko Mixelen erakusketa bisitatzeke. Erraz aurkituko duzu etxea: Isturitzera joateko Aihenako bidea hartu behar da Hazparnen; Aihenatik pasatu ondoren, Isturitzen sartuko zara eta Xanxutea aurrez aurre izanen duzu. X

Xanti Begiristain

Herri txikia, infernu handia

■ Amarengandik orain dela egun gutxi ikasi nuen esaera zahar hau aprobetxatu nahi dut zenbait burutazio egiteko, Nafarroan EITBren hartze ofizialari buruz. Esan liteke historia txiki baten kronika soilu baino ez dela.

Denon jakina da EITB 1982an hasi zela ibiltzen ofizialki Euskal Autonomi Elkartean; beraz, Franco diktadorea hil eta handik zazpi urtera gutxi gora-behera. Hori ere bada denboratxo.

Nafarroan, lau urte beranduago, hau da, 1986an, Paz de Ziganda ikastolako gurasoen ekimenari esker eta Aralarko San Migel santutegian aritzen den Inozentzio Aierbe apezaren borondate onari esker hasi zen ETB1 hartzen Iruñerrian modu ez ofizial eta kaskar samarrean. Horretarako, gora-go aipatutako gurasoek, Aralarko santutegian errepikagailu bat jarri zuten legez kanpo hango apezaren lankidetzarekin.

Nafarroako Parlamentuak 1993an onartu zuen EITB herrialde osoan ofizialki hartzeko baliabideak jartzea, baina harrezkerotik UPNk oztupoak paratu baino ez du egin ebazpen horren aurka. Horrexegatik hain zuzen ere, 1996ko apirilaren 17ra arte ez da lortu Jose Antonio Ardanza lehendakariak eta Javier Otano gobernuburuak hitzarmena sinatzea. Kostatu da denbora galanta, eh! Hamalau urteren huskeria, besterik ez.

Baina kontuz!

Data horretan sinatu zuten bi lehendakariak hitzarmena baina dagoeneko Nafarroako Komunikabideetarako sailburua hasi da esaten egitasmo hori aurrera eramateko bere osotasunean 940.000.000 pezeta beharko direla, eta ikusi beharko dugu aurrekontu hori azkar prestatzen duten ala ez. Hobe lehenbailehen balitz!

Dena den, ezin dugu ahaztu orain arte Nafarroako herri eta jende xeheak egin duen ahalegin handi eta luzea EITB herrialdeko leku gehienetan baliatu ahal izateko, nahiz eta toki guztietan eskuratu ez izana. Hastapeneko garafetan izan ziren bizpahiru manifestaldi, eskaera eta erreibindikazio ugari, bilkura eta mugida dezente eta abar. Era berean, zenbat udalek eta pertsona partikularrek ez ote du ordaindu behar izan sosen bat ETB1

ikus-entzutearen truke, antena edota tresneriaren bat jartzea ezinbestekoa zelako ikusi ahal izateko?

Dena dela, ez dut artikulutxo hau bukatu nahi, hor tartean, gertatzen ari diren hainbat gauza lotsaemangarri pixka batez iruzkindu gabe, esate baterako, EITB Nafarroan behingoz ofiziala izan dadin, Foru Gobernuak inposatu dituen baldintzak inon gertatu ez den bezala (mapen bereizketa, errotuluak eta abar). Jaun-andreak, hemen, Nafarroan ikus ditza-kegu diren eta ez diren telebista gehienak inolako baldintzarik gabe (Espainiakoak, Europako beste asko eta baita Ameriketako baten bat



ere antena parabolikoei esker), eta EAEn eginiko telebista, gure jatorrizko hinkuntza, kultura, folklore, historia eta abar hedatzen dituen, eta gainera bertan dagoena (ez beste asko bezala), ba, diodan moduan, azkeneko hau ez dago era normalizatuan ikusterik. Are gehiago, gutxi barru asmoa dute EITBkoek telebista hori Ameriketaraino helarazteko; ez dut uste hara heltzeko Nafarroako tankerako baldintzarik izango denik. Jakina da, herri txikia, infernu handia.

Hitzarmen honek aurreurratsa suposatzen badu zentzuren batean, ongi etorria izan dadila, baina 14 urte igaro ondoren lortu izana baldintza itsusi horiekin, ez da beste munduko mirakulua. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

De re vasconica plautoniana (I)

■ 1826an Tolosa okzitaniarreko unibertsitatean grekerazko irakaslea, letretako fakultatearen dekanu eta ohorezko legio frantximantaren zalduna genuen Fleury Lécusek (1774-1845) bere *Manuel de la langue basque*: ἰστορικόν, ἑρμηνεία, *grammaire basque* hiri bertsuan argira elki eta Baionako Cluzeau baitan salmentan laga zuen. Ber urteko abuztuan Mixel Abbadie ürrüstoitarrak izenpean zortzi orrialdetako iragarkia ageri zuen Tolosako Douladourenean, eta gogoan har beza honen seme ospetsua zen Antonio Thompson dublindarra Lécuse beraren ikaslea izan zela. 1874an eta Baionako Cazals moldiztegitik bigarren edizio bat karrikaratu zen ia aldake tarik gabe, izenburuko grekerazko hirukoaren latinerapenia ez bazen, *Veni, vidi, vici* hots. Berrikiago Joseba Andoni Lakarra Andriñuaren eskutik berrargitaratua izan da Donostiako Julio Urkixoren mintegiak duen paperean —*Lécluseren Euskal gramatika* (1826), *euskalaritzaren historiako lanabesak, I*—. Sarreran, *avant-propos* delakoan alegia, aspalditik filologoen kaskoak zipiltzen zituen arazo baten berri bazekarren, hau da, Plautoren *Poenuculus* komediaren 5. aktoaren lehendabiziko eszenako 16 lerroi zihokia. Komediaren argudioaren arabera, punikeraz omen daude edo ikerlarientzako ezezaguna zen hizkuntz batean bederik ere: *Un poète comique latin, qui vivoit deux siècles avant J.C., et mourut l'an 570 de la fondation de Rome, M. A. Plautus, nous a laissé une comédie intitulée Poenulus ou le petit Carthaginois, représentée à Rome vers le commencement de la deuxième guerre punique. (...) Cette scène est composée de 27 vers, dont les 11 derniers sont latins. Samuel Bochart, ayant remarqué que les noms propres Antidamas et Agorastocles se reconstruisent, dans les vers puniques, en a conclu que ceux-ci n'étaient autre chose que la traduction des premiers; et, comme il y a un très-grand rapport entre le punique et l'hébreu, il a transcrit les 10 premiers vers caractères hébraïques...*. Hainbat ikerle Bocharten aburuan ez omen zuen zeharo asetzen, Lécuse tartean, eta euskara zitekeelakoan, lztuetari luzatu zitzaion jatorrizko bertsoak euskararekin parekatzeko ardura. Bestalde eta tenore berean Santanderren egoitza zuen Frantziako kontsulak, Parisen 1838an agertu *De l'Ibérie ou essai critique sur l'origine des premiers populations de l'Espagne* liburuaren egilea genuen Louis-François Graslinek prezeski, gauza bertsua eskatu zion Frai Bartolome de Santa Teresa karmeldarrari, menturaz 1827-1829 biurtekoan esan hirian geneukana, Juan Mepomuceno Gomez Duran Santandeko apezpikuaren aholkulari eta izpirituzko zuzendari. Etxebarriarrak, Zaldibikoak bezala, bere interpretazioa ondu zuen, eta biak harturik, Tolosan bildu zen batzar batek, iparraldeko zenbait euskaldun ikasi aholkulari, Bartolomerena eglantzik etzuela erabaki egin zuen.

Epai horrekin ezadostasuna erakusteko, Madariaga jaunak *Plauto bascongado, o el bascuence de Plauto en su comedia Poenulo, acto 5., escena 1., y la impugnación del Manual de la lengua vasca impreso en Bayona de Francia año 1826 por Mr. Lécuse, profesor de las leguas hebrea y griega* idazkia argitaratu zuen 1828an, laguna zuen Juan Jose Mogelek izenpetua baina. Ihardespen samín honek karmeldarrak proposatu interpretazio bera du hasmenta:

1: *My thalónim valon uth si corathisima constih*
Basc: *Nic ak oní mun. Al on utsa! Ic oratujon, Ac on zic*
Cast: *Yo adoro a este poder, poder de pura bondad! Acójate muer a su amparo. A aquel le está bien...*

9: *Bynni id chil luhili gubylan lasibit thym*
Basc: *Bein ní tichi lo. Il i. Gu ibili lazqui-baten*
Cast: *Dejarne ahora dormir un poco. Muerate tú, vete nora mala. Nosotros nos olgaremos bien luego*

Jarraian eta lau gutunetan barrera bere arrazoiak azaltzen aha-legendu zen, Brochart beraren interpretazioa kolokan jarriz. Nolanahi ere, Lécuseren euskarazko eskuliburua gogorki erasotzeko aprobetxatu nahi izanen zuen aukera: *«Yo le digo a Vd. que ni en la gramática ni en el vocabulario doble de M. Lécuse hallo cosa que pueda ser útil para el fin que se ha propuesto el autor, ni para los maestros ni para los discípulos del lenguaje bascongado. Antes bien, si los maestros hacen uso de los tales Gramática y Vocabulario sabrán menos y peor el bascuence»*. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko zortzigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 4an jokatu.

Jesus de la Villa (Euskal Herria), 2.500 ELOkoa — Yuri Shulman (Bielorrusia), 2.540 ELOkoa.

1.e4,e6; 2.d4,d5; 3.Zc3,Ab4; 4.e5,c5; 5.Ad2. Bel-
durrik gabe 'e4' jokaldiari ('Zb5' jokaldia dela eta).

5.....Ze7; 6.c5,0-0.
Beltzen estrategia bitxia hasi da. Peoiaz axolaga-
betzen badira, erasotzeko asmotan dabil, ziur.

7.Dh5,Zd7; 8.Ad3,f5; 9.f6,Zf6; 10.Dh4,d4;
11.Ag5,c3; 12.Db4,eZ-d5; 13.Da3,h6.

Peoia jan zezaketen ('b2') eta partida polita geratu.
Baina, ez, bestelako xedeak ditugu.

14.Ac1,e5; 15.Ze2,Zg4; 16.Ac4,Ae6; 17.Zc3,Zf2.
Errege txuriaren posizioa ez da batere ona. Ezta da-

marena ere.

18.0-0,Dh4; 19.Ad5.ikus koadroa. Beltzen aukera
da. Txuriak zapaltzea da helburua.

19.....Zh3 xa; 20.g3,Gf1 xa; 21.Ef1,Gf8 xa; 22.Af4.
Bestela, besteen artean, honako bukaera zegoen:
22.Ee2,Gf2 xa; 23.Ee1,Gh2 xa; 24.Ed1,Df2. Txuriek
ez zuten etorkizunik.

22.....Df4 xa; 23.Eg2. Otso zuloan sartzea da, baina
beste aldetik ere ez zen irtenbiderik.

23.....Dd2 xa; 24.Eg1,Dd4 xa; 25.Eh1,Ad5 xa;
26.Zd5,Dd5 xa; 27.Eg1,Dd4 xa; 28.Eh1,De4 xa;
29.Eg1,Gf6; 30.Db3 xa,Eh8; 31.Dd3,Gg6 xa;
32.Ef2,Df4 xa.

'Df3' konponbidea ez denez ('Dd2 xa'), txuriek etsi
egin zuten. Eraso ikusgarriaren pairatzaileak izanik.



Osasun Jardunaldiak euskaraz

Eritasun kronikoei eta bizi-kalitateari buruz ariko dira Iruñean erizain, sendagile eta soziologoak

Osasuna Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) antolatuta, Osasun Jardunaldiak egingen dituzte gaur eta bihar Iruñean, 'Eritasun kronikoak eta bizi-kalitatea' izenburupean. 1990. urtean sortu zen OEE, osasunaren arloan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Nafarroan ere bazkideak ditu aipatu elkarteak eta eurek hartu dute euren gain seigarren jardunaldi hauek antolatzeko ardura.

Edurne Elizondo / Iruñea


OSASUNA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAK (OEE) VI. Osasun Jardunaldiak antolatu ditu. Iruñean egingen dituzte gaur eta bihar bitartean, *Eritasun kronikoak eta bizi-kalitatea* izenburupean. Gai hau lantzeko sendagile, erizain, soziologo, gizarte langile eta psikologoak bilduko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan. Eritasun kronikoen askotan eztabaidatu den gaia bada ere, beste ikuspuntu batetik heldu nahi izan diote OEEko kideek. Horretarako, eritasun kronikoen gaia bizi-kalitatearekin lotu nahi izan dute, azaldu digutenez. Jardunaldiak gaur goizeko bederatzi eta erdietan hasiko dira. Bihar, ordu bi eta erdietan partehartzaile guztiak bilduko dituen bazkariak emanen die, berriz, amaiera.

Gaur eta bihar egingen dituztenak OEEk antolatzen dituen seigarren jardunaldiak dira. Lehendik, bi jardunaldi antolatu dituzte Donostian, bat Bilbon, bat Gasteizen eta beste bat Gernikan. Aurtun, Iruñeko bazkideak hartu dute euren gain jardunaldiak antolatzeko ardura. Orain arte egindakoetan, minbizia, eritasun infekziosoak, adinekoren osasun arazoak, aurrerapen terapeutikoak eta oinarritzko osasun laguntza bezalako gaiak jorratu dituzte. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, hain zuzen, interes zientifiko-sanitario handiko jardueratzat jo ditu OEEk antolatzen dituen jardunaldiak.

Zuzendaritzaren harrera

ona • Osasuna Euskalduntzeko Erakundeak Bilbon sortu zen 1990. urtean. Osasun arloan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, jalo zen, hain zuzen ere. Asmo hori egia bihurtzeko Euskal Herri osoko herrialdeetan hedatu da, hau da, Euskal Autonomi Elkartearen, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Iparraldeko hiru herrialdeetan. Gaur egun, 300 bazkide dituzte gora dituzte OEEk eta osasun arloko 450 profesional euskaldun baino gehiagorekin harremanak izaten ditu. Nafarroan 60 profesional dute lotura OEErekin eta horietako asko bazkideak dira.

Nafarroan OEEk dituen bazki-



Eritasun kronikoak aztertuko dituzte Osasun Jardunaldietan.

XOUSE SIMAL

«Orain arte osasun arloan euskara ez da gehiegi kontuan hartu, ez dago inolako plangintzarik»

de eta laguntzaileentzat erronka izan da aurtengo jardunaldia prestatzea. Halaxe azaldu digu Arantxa Zabala, erizain eta jar-

dunaldietako antolatzaileak. Iaz bildu ziren lehen aldiz Iruñerriko profesional euskaldunak jardunaldiak antolatzeko aukera eztabaidatzeko. Donostiako ordezkariekin jarri ziren harremanetan eta euren laguntzari esker, erronkari aurre egin diote. Batzorde zientifikoa eta batzorde antolatzailea eratu dituzte lan guztia egiteko. Bertan egon dira lanean Osasunbideako hainbat lagun, Lehen Osasun Laguntzan

«Eritasun kronikoei buruz asko hitz egin bada ere, bizi-kalitatearekin lotzea berrikuntza da»

lan egiten dutenak gehienak.

«Beldur ginen hasieran, ez baikenuen lekurik eta Nafarroan esatea Osasuna Euskalduntzeko

Erakundeko kideak gaita, ez da erraza». Lehen Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren aurrean euren proiektua aurkeztea erabaki zuten, baina, eta «harrera izugarri ona izan genuen», azaldu du Zabalak. Bilerak egiteko, beraz, zentro bereko gelak erabili dituzte. «Azpiegitura osoa eskaini digute, finean».

Zuzendaritzak eskainitako harrera ona ezezik, izan dute beste ezustekorik ere OEEko kideek. «Orain arte gure artean hainbeste euskaldunik zegoen ere ez genekien, ez baikenuen hitz egiten». Jardunaldiei esker, beraz, harremanetan jarri ahal izan dira Nafarroako osasun arloan lan egiten duten hainbat eta hainbat euskaldun. «Gure artean eta baita jendearekin euskaraz aritzea da gure asmoa», gogoratu du Arantxa Zabalak, «baita euskara maila zientifikoa garatzea ere».

Beharrak eta hutsuneak aipatu ditu Arantxa Zabalak. Euren lana euskaraz egiteko osasun arloko hainbat profesionalen dute beharra eta ildo horretatik gaur egun oraindik dauden hutsuneak. Arantxa Zabalen ustez, «orain arte euskara ez da gehiegi kontuan hartu, ez dago inolako plangintzarik. Epe laburrera legeak dioena betetzeari ekin dio orain Lehen Osasun Laguntzako Zuzendaritzak». Bere ustez, baina, «eskualde euskaldunetan zer-nolako errealitatea dagoen ezagutu eta horren arabera plan bat zehaztu beharra dago». X

Mahainguruak eta hitzaldiak

GOIZEKO bederatzi eta erdietan hasiko dira gaur VI. Osasun Jardunaldiak. Partehartzaileen artean dokumentazioa banatu dute lehendabizikoz eta ondoren, hamaikarako aldera, jardunaldiak aurkeztuko dituzte. Lehen hitzaldia ordu erdi geroago eskainiko dute Jose Maria Begiristainek, sendagile eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak, eta Maria Isabel Larrañagak, erizain eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak. Jardunaldien izenburua bera hartuko dute mintzagai, hau da, eritasun kronikoak eta bizi-kalitatea.

Ordu erdiko atsedenaldia egin eta gero, eguerdian goizeko gaiari buruzko ahozko komunikazioak aurkeztuko dituzte. Oso-tara 49 lan jaso dituzte jardunaldien antolatzaileek, horietako 13 Nafarroatik bertatik. Bertako jantokian bazkaldu ondoren, arratsaldean ekingo diote berriro lanari. Lau eta erdietatik aurrera, *Eritasun kronikoak osasun mailan* izenburuko mahaingurua egingen dute. Ander Arrazola, Ospitaleko Kanpoko Laguntza Espezializatu-ko zuzendariordea, izanen da moderatzailea. Hizlari, berriz, hauek: Manuel Ezio-

laza sendagileak eta Isabel Aleman erizainak eritasun kronikoak oinarritzko osasun laguntzan izanen dituzte mintzagai, Delia Yarnoz sendagileak eritasun kronikoak eta homeopatia eta Antonio Intxauspe Adimen Osasuneko zuzendaria kronikotasuna osasun mentalean.

Bihar goizeko bederatzi eta erdietan hasiko dira lanean jardunaldietako partehartzaileak. Goizean, *Gaurko eritasun kronikoak eta gizarte* izenburuko mahaingurua egingen dute. Mikel Bujanda kazetaria izanen da moderatzailea. Idoia Gaminde soziologoak

zaintzen sistema informala aztertuko du. Ospitale eta osasun zentroetatik kanpoko eritasun kronikoen zainketa jorratuko du, beraz, Virginia Eraso gizarte langileak, berriz, herrietan bizi diren eritasun kronikoen arazo sozialak aztertuko ditu eta metadonarekin egindako tratamenduak Iñaki Arrizabalaga psikologo klinikoak. Koldo Martinez, azkenik, *G.I.(B)zarteaz hainbat gogoeta* izenburua duen hitzaldia eskainiko du. Hiesari buruz gizarte hainbat arlotatik zabaltzen diren mezuak aztertuko ditu Nafarroako Ospitaleko sendagile honek.

◆ Aurora Beltran ◆ Musikaria

«Motza izan da bidea»

Nafarroako Tahures Zurdos taldeak lan berria kaleratuko du aurki. Urtebetean grabatu duten bigarren diskoa da 'Azul'. Lan berria ezezik, disketxe berria ere izan dute nafarrekin, EMI utzi eta RCA konpainiarekin grabatu baititu Tahures Zurdos taldeak bere abesti berriak.

Edurne Elizondo / Usi

ERREPIDE estu baten amaieran dago Usi. Aurora Beltran Tahures Zurdos taldeko abeslaria bizi den herria. Herri txikia da eta Aurora Beltranen etxea dotore zutitzen da plazaren erdian. Bertan aurkitu dugu abeslari nafarra, bere taldekide guztiek inguratuta.

■ **Azul lan berria malatz aldera izanen da kalean. Nolako diskoa egin duzue?**

Abestiak kezkatzen eta dibertitzen gaituzten gauzei buruz egiten jarraitzen dugu. Izenburua abesti baten titulua da, diskoaren lehen singlea, hain zuzen. Azul nik mundu urdinari buruz dudako oso ikuspegi partikularra da, tintaz zikindutako abestiak deitzen diet nik. Psikiatrarengana joaten zarenean bezala da, mantxa bat erakusten dizu eta zuk nahi duzuna ikus dezakezu. Oso abesti ona da. Diskoa oraindik kaleratu ez denez, zain gauden oraindik, ea jendeak zer-nolako harrera egiten dion. Orain arte kritika onak izan ditugu baina ea diskodendetan zer gertatzen den.

■ **Zer lortu nahi duzue disko berri honekin?**

Aurrekoak baino eskuragarriagoa izatea espero dut behintzat. Oso abesti onak ditu. Orain arte zala, gure lanari esker duir. Unez bizitzen jarraitzea espero dut, besterik ez. Guri zu-



Tahures Zurdos taldeko abeslaria da Aurora Beltran.

OSKAR MONTERO

zenean jotzea gustatzen zaigu gehien eta disko berri honekin ere halaxe jarraitu nahi dugu.

■ **Aurrekoak baino eskuragarriagoa izatea espero duzula erratean, EMI zuen aurreko disketxearekin izan dituzuen arazoez ari zara, ezta?**

Bai. Hiru disko grabatzeko kontratua sinatu genuen. La caza izan zen azkena eta kontratua ez berritzea erabaki dugu. EMIrekin lehen diskoa atera genuenean ez zen inolako arazorik egon baina bai, ordea, hurrengo biekin. Asko gainera. Baztertuta sentitu gara. Promozioa, adibidez, hutsaren hurrengoia izan da. Horren adibiderik argiena La caza diskoarekin gertatu dena izan da. Kontratua bukatu bezain laster eten egin zuten promozioa eta diskoa desagertu egin dela erran daiteke.

Eta nire ustez, single asko ateratzeko adinako indarra bazuen disko horrek.

■ **RCA da orain zuen disketxea. Zer moduz?**

RCArekin oraingoz oso ongi gaude. Hasieratik diskoa amaitu arte dena oso ongi atera da. Ikusiko dugu aurrerantzean zer gertatzen den.

■ **Azkenaldian ez duzue kontzertu askorik eman. Eraginik izan al du horrek zuen lanean?**

Irratietan eta ez ateratzearen ondorioz, jendea kezkatzen hasten da, jada elkarrekin ez gauden galdetzen hasten dira eta pena da. Egoera honen guztia errua, gainera, ez dute gure diskoek. EMIren kudeaketa txarrak bai. Kudeaketa, finean, ez dago gure esku, zoritxarrez, gure bakanrik alor musikala kontrolatzen dugu.

■ **Bizi izan duzuen egoera horrek dezepzionatu egin al zaituzte?**

Ez gara haurrak, esperientzia dugu, eta mundu hau ezagutzen dugu. Jada ez gaitu ezerk dezepzionatzen, ikasi dugu eta ez dugu sufritzen. Nik aspaldi ikasi nuen

gu produktu bat besterik ez garelako konpainiarentzat. Alde batetik tristea da, holako proiektu batean asko jartzen dugulako, baina osasuna ere. Disketxeetako jendeak, gainera, soldata jasotzen du hilero, baina gure ez. Promozioa eta kontzertuak beraiei berdina zaie baina guri ez. Guk zuzenean jo nahi dugu baina EMIko arduradunen utzikieragatik jo gabe gelditu gara askotan.

■ **Disketxeen mundua halakoa izanik, ez duzue inolaz zuen zigilua sortzea pentsatu?**

Gaur egun hemen ez dago konpainia independenterik. Zergatik? Guk geuk orain gure zigilua atera dezakegu baina gauza da gure diskoak banatzeko multinazional batera jo beharko genukeela. Azkenean, independente den bakarra izena da. Gainera, disketxeentzat ere ez zara erakargarria eta ez dizute kasurik egiten. Oso zaila da. Independenten izateak diskorik ez saltzea erran nahi du, irratiaren zure musika ez entzutea. Gu, gainera, musikariak gara, ez exekutiboak.

s o s t a i a

'Aurreko hosi diskoen bide berari jarraitzen dio Tahures Zurdos taldearen 'Azul'-ek. Taldekideek zehaztu duteenez, hala ere, badu berrikuntzarik, Juanmaren bi abesti eta Loloren beste bi agertzen baitira. Aurrekoak baino pluralagoa da, beraz, euren ustez.

Juanma eta Loloren abestiak ez dira, hala ere, berrikuntza bakarra, taldekide berria baitu Tahures Zurdos orain. Cristina gitarra jo eta abestu egiten du. Badu musikaren munduan esperientzia, eta bere asmoa proiektu propioa garatzea da. Oraingoz nafarrekin ematen du denboraldi bat.

EMI disketxearekin izan dituzten arazoak ahaztu eta disko berriarekin aurrera jarraitzeko asmoa du Tahures Zurdos taldeak. Bederatzi urteko ibilbidea dute nafarrek jada atzean, baina beste hainbeste betetzeko indarra eta go-goa ez zaie falta.

■ **Nafarroan gutxi jotzen duzue. Zer dela-eta?**

Nafarroan ez du inork jotzen. Murtzian, adibidez, hemen baino gehiago jo dugu. Sanferminak izanda, adibidez, sinestezina da Iruñean ez egotea Valentzian dagoen zirkuitua. Baina hori ez da gure arazoa bakarrik, talde guztiena baizik. Gu Nafarroan jotzeko irrikan gaude beti.

■ **Bederatzi urteko ibilbidea egin duzue jada. Atzera begiratu zer pentsatzen duzue?**

Bide motza izan da, oso azkar pasatu da denbora. Egia erran, zuzeneko disko bat egiteko materiala badugu eta hori da hain zuzen gure asmoa. Hamar urte betetzen ditugunean halako disko grabatzea pentsatzen ari gara. Denbora asko daramagu elkarrekin, oso ongi ezagutzen dugu elkar eta lagun onak gara.

«Sanferminak bezalako jaiak izanda sinestezina da Iruñean kontzertuak antolatzeko zirkuiturik ez izatea»

P A N E
LUCRANDO

LIRIKAZ
HONATAGO
12

GAUR:

ARRATSALDEKO
ZAZPI TERDIETAN
GAZTELO PLAZAN
MANIFA
SOLIDARIAREN
ALDE

AMODIOA ETA
DUINTASUNA



ZALDI ERDA